

O. SARRERA

Ezkontzak betidanik izan dira ospakizun motibo bat, pertsonak elkartzeko tradizioak non maitasuna eta konpromisua nagusiak diren. Egun hau berdingabea da, eta bizitza osorako gogoratuko dituzun hainbat une magikoz beterik dago.



Baina, denok ezagutzen dugu norbait ezkontzeko arazoekin aurkitu egin dena, hau planifikatzea ez delako erreza: leku perfektua aukeratzetik, xehetasun txikiago bakoitza koordinatzeraino.

Zure bizitzako egun zoriontsuena izatetik benetako amesgaizto izatera bihur daiteke. Arazo hau ikusita, Ane Revenga, Joane Iturralde, Alazne Baz, Ibai Vicente eta Irene Fernandezek **Zorionbide** enpresa sortzea erabaki dugu. Bezeroa hasierako hautaketatik egunaren antolaketaraino lagunduko dugu prozesu osoan buruhauste guztiak arinduz.

Inkesta baten bidez, zure gustuak eta historia kontuan hartuta, zure ametssetako ezkontza errealitate bihurtzeko zerbitzu pertsonalizatu bakarra eskaintzen dizugu.



Zorionbide enpresaren logoaren diseinua

Gure enpresan 5 bazkide gara eta bakoitzak lanpostu desberdin batean lan egingo du.

- Alazne, bezeroarekiko **arreta telefonoari** erantzungo dio , gure bezeroen zalantza guztiak argitzeko eta haiekin elkarrekin geratzeko: horretarako, bere eginkizuna datak kuadratzea izango da.
- Ibaik, **informatiko** bezala lan egingo du, weborria diseinuan eta eguneratuko du. Eta egon daitezkeen arazoei konponbidea aurkitzea.
- **Eskaintzak** egunero **bilatzea** garrantzitsua da ere. Lan hau egiteaz, Ane eta Joane erduratuko dira: merkatuan dauden hornitzaileak aztertzea, haiekin kontaktuan egotea, bezeroarentzako aukera hoberenak aurkitzea... Hau da, informazioa ahalik eta eguneratuen izateaz arduratuko dira.
- Irene eta Joane, lokalean egongo dira, bezeroei arreta zuzena eskainiz, dena adosten eta prest uzten, ezkontza ahalik eta hoberen antolatu dezagun.
- Diseinu arloan, Alazne, Ane eta Ibai egongo dira. Diseinu arloan hainbat material desberdinarekin lanean ibiliko gara: **Ezkontza ospakizunerako gonbidapenak** egitea, **bezero berriak erakartzeko kalean jarriko ditugun kartelak** diseinatzea, eta baita ere **flyerren diseinua** egitea. Hau egiterakoan zaiatuko gara ahalik eta erakargarrien izan dezaten, bezeroak erakartzeko.
<https://drive.google.com/file/d/1M4ri6AQuizoZX2oCciso6tjE7Dez>
(Hauek dira ospakizunerako gonbidapenen diseinu batzuk)
https://drive.google.com/file/d/1MkcOYO_bOkbh5WG-RzaPma87
(Hauek dira kartelak. Kartelak, inprimatuko ditugu eta kaletik itsatsiko ditugu).
https://drive.google.com/file/d/1EO1Le7HYK_Lo4dHE9BTWuwaw
(Hauek dira Flyerrak. Hauek ere inprimatuko ditugu eta kaletik banatuko ditugu, eta zenbait leku puntualetan ere).
- Ezkontzaren egunean dena **dekoratzeaz** eta antolatzeaz, guztiok arduratuko gara.
- Eta azkenik, **lokaleko garbiketa** egiteaz denok arduratuko gara. Hau egiteko txandakatu egingo gara eta egun bakoitzean bi pertsona desberdinek batuko dute dena.

